

IRU ZORTZIKO AITA MENDIBURU-RI. ¹

Soñu-gozo artean
Mingañak leundu,
Kantarik izarrez gaiñ
Eta munduz-mundu,
Zeiñ onragariya dan
Guretzat seguru
Euskaldun iztun eder
Aita Mendiburu.

Euskaldun erriyetan
Arren itzgiroak
Lilluratzen zituben
Erri ta kanpoak;
Biyotzak obeturik
Naiz izan gaistoak
Biur oi ziran bildots,
Ziranak otsoak.

Zeruko erausiya
Bazuben izketan,
Eztizko iturriya
Du eskribuetan:
Irakurri zazute
Gogoz da benetan
Danok Euskaldun-erri
Chiki ta aundietan.

X X

*
* *

¡MENDIBURU!

Ama Euskera gurea iltzen genakan ordu triste aetan, artutzen nuen, berari irakurtzeko, zure izkribu bat; eta entzuten zuenean zure itza, pizturik esaten zidan: «iltzen banaiz ere, gelditzen zaizu, seme damutua, nere lengo seme eta zure anai on orren pusk eder ori.»

Baña ¡O Mendiburu!.... pusk eder onek lurretik, eta zure laguntz ederragoak Zerutik, beti-betiko Ama Euskera pizturik, gaur alchaltzenda farrez, eta esaten digu: «¡goazen, goazen Oiarzuna, Jaunari eskerrak emanaz, Mendiburu onratzera!»

ANTONIO ARZAC.

(1) En los momentos de ajuste de este último pliego, y cuando nos es de todo punto imposible incluirla, hemos recibido la música compuesta expresamente para este zortziko por el Sr. Guisasola, organista de la Ciudad de Orduña. Agradecemos la atención, sintiendo no poder darle cabida en este número.